

Alfonso Guerrari
elkarriketa

A3 • 09:30etan

Antena 3 kateko *El Primer Café* saioan Isabel San Sebastianek Alfonso Guerra sozialista elkarriketatuko du gaur goizean.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ CADENA PERPETUA.

Tim Robbins aktore erakargarriak Morgan Freemanekin batera protagonizatutako drama garestia, ederra, ikusgarria eta berezia da. Lehena, emaztea hiltzeaz akusatuta, hil arteko kartzela zigorra bete beharko duen pertsonaia azkarra da. Freeman beltzak, berriz, kartzelan urte pila preso daraman lagun zintzoarena egiten du, Darabont zuzendari hasiberriaren aginduetara. Kartzela giroko film multzoaren barnean nabarmena da, klasikoen antzera planteatua, eta duen erakargarritasun nagusia, aktoreen lan txukunaz gain, pertsonaien arteko harremanak sakonki aztertuz izanean datza.

■ PRET A TOUT.

Gus Van Sant modako zinemagile bitxiak Matt Dillonekin eta Nicole Kidmanekin filmaturiko abentura polit honekin tarte entretenigarri eta atsegina igaro dezakezue. Bi izar erakargarri horiek bikote gazte amerikar arrunta osatzen dute, euren antzeppen finekin planoak nahiko ondo animatuz. Batik bat Kidmanek, Tom Cruisen emazte ospetsuak, lan harrigarria egiten du bertan. Gizarte amerikarrari barre egiten dion film gozagarria da, berria eta fresko samarra. Hegoaldean *Todo por un sueño* izenburuarekin estreinatu zen.

■ LA PISTOLA DE MI HERMANO.

Ray Loriga idazle gazte bitxiak kameraren atzean egindako saiaketa bakarra seinale kodetuan ikus dezakezuen drama tragiko modernu hau da. Hain zuzen ere, idazle beraren *Caidos del cielo* eleberriaren egokitzapena da, zeluloidean emaitza kaskarreko abentura zail, ezorekatu eta ilun batean gauzatua. Aurpegi berriak aurkezten ditu pantailan, tartean bere bikote ospetsuari rol txiki bat gordez. Hau da, Cristina Roseninge abeslariari. Horrek



ARTXIBOKOA

William Holden aktorea *Cerco de odio* filmeko eszena batean.

Bahitzaile ero bat eta haren biktima
azkarra klasiko txiki batean

■ CERCO DE ODIIO. William Holden izarraren zerbitzura egokitutako melodrama psikologiko zahartxo bezain eder hau gomendatu nahi dizuet. Rudolph Maté argazkilari ohiak zuri-beltzeko argazki fin eta landua aukeratu zuen, bahitzaile baten eta haren biktimaren arteko kontuak filmatzeko; kasu honetan zuzendari gisa aritu zen. Emaitza zoragarria da, bai gidoiaren aldetik, bai narrazioaren aldetik, bai eta teknikoki aztertuz gero ere.

Sir Gawain y el caballero verde

1973, Stephen Weeks 09:50 ETB2

Los despiadados

1967, Sergio Corbucci 10:25 A3

Suspendido en sirvenguenza

1962, Mariano Ozores 11:00 La2

Jamás sin tí

1997, Daniel Janneau 16:00 T5

Operation Crépuscule

1989, Andrew Davis 21:00 F3

Cadena perpetua

1994, Frank Darabont 22:00 ETB2

La pistola de mi hermano

1997, Ray Loriga 22:00 C+(e)

Le Crime d'ovide plouffe

1984, Denys Arcand 23:00 Arte

Prête a tout

1995, Gus Van Sant 23:10 F2

Calle 29

1992, George Gallo 00:40 ETB2

Cerco de odio

1948, Rudolph Mate 02:00 La2

El difunto tenía un rostro familiar

1994, Joyce Chopra 02:00 TVE1

TC-2000

1993, T.J. Scott 02:05 A3

Los heroes millonarios

1973, Duccio Tessari 03:15 La2

♦ TXARRA ♦ ♦ ESKASA ♦ ♦ ♦ BALEKOA ♦ ♦ ♦ ♦ ONA ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ BIKAINA

ETB 1

06:25: Bertatik Bertara.

07:05: Superbat. Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Max miresgarria', 'Mamu harrapakariak', 'Arturo erregea eta justiziaren aldeko zaldunak', 'Pottokiak', 'Autobus magikoa', 'Candy Candy'.

09:30: Elkartasunaren bideak.

10:00: Goenkale.

10:40: Euskal Herritik.

11:15: Ikusgela.

12:15: Bertatik Bertara.

12:55: Iparraldearen orena.

13:05: Tom eta Jerry mutikotan.

13:30: Gaur egun. Albistegia.

14:20: Bai zera!.

14:45: Txirrita.

15:05: Txirrindularitza: Euskal Bizikleta. 2.Etapa: Billabona-Muxika.

18:15: Iparraldearen orena.

18:25: Superbat.

19:30: Izar gaztearen bila.

20:00: Gaur egun. Albistegia.

20:55: ETB kirolak: Txirrindularitza. Euskal Bizikletaren laburpena.

21:10: Bertatik Bertara.

21:45: Goenkale.

22:35: Ertzainak. Telesaila.

23:30: Algara.

00:30: Kontzertua: Jarabe de Palo.

01:20: Bakarrik. Estepan Aldamiz-Etxebarriak aurkeztutako saioa.

02:45: National Geographic: Pumaren itzulera. Dokumentala.

03:40: Bai zera!.

04:05: Hamaika korapilo.

05:35: Ikusgela.

06:30: Herri Musika Sorta.

ETB 2

07:10: Empresa vasca.
07:45: Del país de los vascos. Dokumentala.

08:10: Gran Hawaii.

08:55: Roseanne.

09:20: Forum.

09:50: Zinema.

Sir Gawain y el caballero verde. Zuzendaria: Stephen Weeks. Aktoreak: Nigel Green, Robert Hardy. 1973.

11:25: La botica de la abuela.

11:50: La cocina de Pedro Subijana.

12:10: A mediodía.

12:35: Loco por tí.

13:00: La niñera.

13:30: La buena vida.

14:00: Informacion territorial.

14:28: Teleberri.

15:30: ETB kirolak.

15:50: Lo que faltaba.

17:40: La ley de la bahía.

18:25: Cinco en familia.

19:15: Medias de seda.

20:05: Pacific Blue.

20:58: Teleberri.

22:00: Zinema.

Cadena perpetua. Zuzendaria: Frank Darabont. Aktoreak: Tim Robbins, Morgan Freeman. 1994.

00:40: Zinema.

Calle 29. Zuzendaria: George Gallo. Aktoreak: Danny Aiello, Anthony LaPaglia. 1992.

02:30: La escultora.

03:20: Lo que faltaba.

05:00: Forum.

05:30: Amaiera.



irratia ♦

Euskadi Irratia. Hizkuntz Politikarako sailburuorde Josune Ariztondori elkarriketa egingo diote 08:45etan Manu Etxezortu, Gorka Etxebeste eta Odile Kruzeta kazetariak, *Goizean behin* saioari hasiera emanez. 09:30etan, Asier Muniategik azalduko du zergatik zabalduko den gaur Bilboko Liburu Azoka. 10:30etan, Arantxa Aldezabal gonbidatuko dute, Urdaibaiko landareria ezagutzeko sortutako ikastaroari buruz hitz egin dezan. Ondoren, Berbaroren

10. urteurrena ospatzeko egingo den kontzerturako sarrerak banatuko dituzte. 11:15etan, euskaraz ikasteko aukerarik izan ez eta euren buruak kaltetutzat jotzen dituztenak izango dira protagonista.

Bilbo Hiria Irratia. 10:00etan hasiko da *Ingeles gosaria*, eta egunkariaren irakurketa kritikoa egingo dute bertan. Horrez gain, J.B.Dirassarri eta Xabier Amurizari egingo dako elkarriketa eskainiko dute. 11:00-

etan, *Ibaizabal* magazinean, Maialen Lujanbio, Bea Zeber kazetaria eta Eneko Labegerie abeslaria elkarriketatuko dituzte. 16:00etan, Gabriel Arestiri buruz arituko dira *Haratago* eztabaida saioan. 17:00etan, *Ziutateaz* magazinean Fermin Muguruza, Ines Intxausti eta EGUNKARIAKO Barkatu Ama gehigarriko Mikel Lizarralde elkarriketatuko dituzte. Azkenik, Jean Haritzelharri egingo diote elkarriketa 19:00etatik aurrera *Nor da nor* saioan.